



KRISTIÑAU TIPO BARRIA

Gizaldi bakotxak bere ezaugarria dauko. Teknizismoaren aldetik, gure gizaldia, bomba atomikoaren gizaldia lez igaroko da historiara. Erleghiñoaren aldetik barriz, Ekintza Katolikoaren gizaldia bezela.

Itxi deioegun zientifikoeri bomba atomikoaren gaiñean eurak euretara verba egiten. Guk, aintzat artu daigun orain Ekintza Katolikoa eta beronek aspaldion mundu osoan zabaldu dauan Moviementu Liturgikoa.

Gaur egunean, kristiñauak gero ta parte geiāgo artzen dabe Jaungoikoaren kultuko zeregiñetan. Oraingo eleiztarrak mezea ulertzen asi dira, eta atsegiñez irakurten ditue mezaliburua eta Biblia Santua.

Erleghiñoko iturrira bertara joaten ikasi dogu, eta ur garbia edaten oitu gara. Mezako otoitzetan eta lektoretan erleghiñoko irakaspén sakonak aurkitu doguz: Jaungoikoaren semeak gareala, Trinitade Santua gure arimetan bizi dala, Kristogaz gorputz bat egiten dogula, ta abar.

Erleghiñoko egia fundamentalok, mezaliburuan eta Eskritura Santuan ikasi doguzanok, sendotu egin gaitue gure fedean, ezagutu eragin deuskue gure kristiñau dignidadea, eta txarrerako makurkeriari kontra egiteko sekulako indarra emon deuskue. Pio Parsch, liturgizale ospetsuak diñoan lez, bizitza liturgikoak kristiñau tipo barri bat moldatu dau gure egunotan: ogeigarren gizaldiko kristiñaua, argitua, erleghiñoan ondo sustraitua, jakintzazalea eta alkartasunezko espiritua bizi bizirik daukona.

Askotan entzuten dogu, gaurko kristiñauak lengoak baiño txarragoak direala, eta orain irurogei urteko kristiñau bizitzea garbiagoa zala.

Zer erantzun oneri? Jaungoikoak bakarrik daki nor dan ona eta nor dan gaiztoa bere aurrean. Egia da orraitioño, lengoen aldean oraingo oiturak asko nasaitu direala. Baiña ez dogu aztu bear, gure burua gaxetik libretako medioak be, asko geitu direala, eta oraingo kristiñauak erleghiñoko gauzetan geiāgo dakiela. Orregaitik esaten cban Faulhaber Alemaniako Kardenalak, Jaungoikoari eskerrak emon bear deatsaguzala, ain sasoi onean bizi garealako.

Baiña zoritxarrez, gure artean kristiñau asko dagoz oraindiño, lengo ignorantzia bizi direnak eta euren rutinarismo alperretik urten gura ez dabenak.

Ignorantzia ori kentzeko eta ogeigarren gizaldiko kristiñau tipo barria gure artean ugarituteko, lan guztiz txalogarria egiten diardu Bilbaoko Obispo Jaunak. Aitatu daiguzan obra bi bakarrik: urtean urtean ospatuten dan Evangelioaren Astea, eta illeko lenengo domeketan obispaduko eleiza guztietan Trinitade Santuari emoten jakon aparteko kultua.

“Kultu onegaz —diño Obispo Jaunak— gure kristiñauak erleghiñoko egia fundamentalak ikasiko dabez, euren fedearen gaiñean ideia argiak eta zuzenak eukiko ditue, eta gure erriaren ignorantzia ikaragarria laster ezereztuko da.”



Bermeotik Mundakara, naiz trenez naiz kamiñoz, bazoaz, eta itxasorantza begirada bat zuzentzen badozu, isla bat agertuko jatzu begien aurrean, luzengatxua, ez andia, ez txikia, ezkerretarantza zorrotza ta meia, eskumatara altua ta zabala, eta zabal uanean bedarrez jantzia.

Eskoitik Ogoño dauko jagole, ezkerretik Matxixako, aurrean Mundaka ta Bermeo.

Izaro da islearen izena.

Vista zolirik ez dozu bearko, erdi uanean orma zaar batzuk oraindiño zutunik ikusteko. Beiñola baten, antxe bizi izan zirean fraille frantziskanoak, eta antxe euki eben euren komentua eta Santa Maria Madalenearen eleiza txikia.

Andik, egun batean eta bestean, gau batean eta bestean, olatuen murmuriagaz batera igoten eban zerura frailleen kantuak:

Jaunarena da lurra
ta bere betetasuna.
Berak ipiñi eban
itxasoaren gaiñean.

Orain ez da an frailleen kanturik entzuten. Txitean pitean, bai, entzungo dozu Bermeen, ez dakit zelako tristurea darion kale kanta bat:

Non ete dago,
Izaron baiño,
Maria Madalenia,

Maria Madalenia ta
Komentu fraille bagia?

Eta urtean urtean, Santa Madalena egunean, garagarillaren 22'an, Bermeoko aiuntamentua joaten da bertaraiño, islearen gaiñ daukon eskubidea erakusteko.

IZAROKO KOMENTUA

San Frantziskoren Ordenako historiadore guztiak diñoskue zelan eta nondik sortu zan leku orretan fraille komentua jasoteko asmoa.

Fundatzaillaren eriotzatik 200 urte igarota gero, San Frantziskoren Ordeneak naikoa galdu eban bere asikerako berotaldia ta adorea. Amabostgarren gizaldian, komentu eder eta aundi bat euken frantziskanoak Bermeoko errian. Komentu orretan frailleen artean nasaitasun batzuk sartu zirean, batez bere pobretasunean.

Bertan bizi zan Frai Martin Arteaga, fraille santu bat. Ez egoan bera ain gustora nasaitasun orreekaz, eta bere Aita San Frantziskoren irakatsiak zeatzago gordetako, komentuko beste iru lagunegaz nagusiandik eta Bermeoko aiuntamentuagandik lortu eban Izaron komentu barri bat jasoteko eskubidea, antxe pobretasunik aundienean biziteko eta egiten ez ebenakaitik penitentzia egiteko.

Egia, adore aundikoa ta osasun onekoa izan bear, alako bakartadean biziteko. Eta nok esango leuke! Antxe igaro zituen frailleak ia irureun urte ondo beteak (1422-1714), bitarte orretan jazoera asko ikusita, pozgarriak ugari, tristeak ez gitxi.

FRAILLEEN BIZIBIDEA

Frailleak ondo ekien Evangeliotik Kristoren esana: "Ez da gizona ogiagaz bakarrik bizi, ezipabere Jaungoikoaren agotik urtetan dauan verba guztiagaz". Ori gorabera, ogia bearrekoa dala bizitzeko ezin uka-

tu. Bai, baiña Izaroko frailleak ez zirean azutuen santuen beste esan bategaz: "Pobretasuna gitxigaz kontentu, andigurea asetu-eziña". Orregaitik, Frai Martin eta bere lagunak ez eben asko bearko jan-edanean, jantzian eta gaiñerako bearrizanetan, bizitzeari aurpegi emoteko. Jatekotxua eltzen ez bazan, zer egin? Kordoia apur bat estuagotu garrían, eta, barruko alegrantzia galdu barik, pazientzia artu eta zeruko Providentzian itxaron.

Orraitiño, ba-zituan Izarok bere ongilleak. Izaroren izena laster zabaldu zan inguruko errietan. Bermeon, Mundakan, Elantxoben, Lckecition, etc. ba-ekien zeintzuk egunetan agertuko zirean Izaroko frailleak eskean. Bizkai guztian bardin, eta, zetan esan be ez, euskaldunen atreak eta biotzak zabalik egoten zirean beti Izarotarrentzat. Ez gitxitan, Bizkaiko Jaunak eta Gaztelako Erregeak eurak be etorten zirean Izarora, eta limosna mordoska politak bialdu-bere bai. Lenengo Mundakara etorten zirean, atarako ipiñita euken etxe batera, eguraldi ona zanean islara joateko.

IZAROKO ITXASARGIA

Erriak egiñiko mesede materialen ordez, frailleak al eben moduan pagetan eutsen ongilleceri euren vorondate ona. Esate baterako, ain eta ain egunetan suak egiten zituen, garra ta keia ataraten eben, argiaren seiñaleagaz itxasontzileri non egozan jakin eragiteko.

Baiña beste modu bat euken Izaroko frailleak ongilleceri euren eskerrona erakusteko: bakartade itzal aretan Jaungoikoari ofrezidu euren otoitz eta penitentziazko bizikera gogorra. Ongilleentzako pagurik onena izaten zan euren izenak Izaroko adiskideen listan izatea.

JAZOERA TRISTEAK

Bakartade aretan vorondatez arturiko bizikera latza naikoa ez baillitzan, gizonen alde-



tik sufrimentu asko igaro bear izan eben Izaroko frailleak. 1596 urtean, irailaren lenengoan, Frantziako La Rochela deritxon uriko hereje calvinistak, piraterian edo itxaslapurretan etorri zirean Bermeora amalau ontzitan. Embarkaziño batek Izaron atrakatu eban, eta barruko gente guztia bertan disembarkatu ostean, komentuari su emon eutsen, eta eleizea ta klaustrea izan ezik, beste guztia kixkalduta itxi eben.

Frai Juan Zabala, Aita nagusiak, beste fraille biren laguntziñoagaz, Sakramentu Santua artu ta gorde egin eban atx arte baten, iñok ez topetako lekuan. Piratak ez eben ikusi Frai Juan, beste biak bai, baita eureri txarkeri asko egin-bere. Soiñeko habituak erantzi, dantzan eragin, lenengo banan banan, gero curakaz batera, eta beste onetariko gaiztakeri asko egin eutsezan, Ez zirean baiña kastigu barik geratu, oraintxe ikusiko dogun lez.

Bermeon zer pasetan zan bazterretan jakin zanean, Bizkai guztitik, batez-bere Durango inguruetarik, soldadutza aundia batu zan. Ba-etozan Bermeorantza, Gonzalo Ibañez de Ugarte, Markiñako zalduna, egun aretan Mendatan egoana, kapitan adoretua, danen buruzagi zala.

Ugarte bere gizonakaz, guda zarata aundian, Lamiaran eta Deminiku aldetik agertu zanean, piratak igesari emon eutsen ika-

ragarritzko arrapaladan. Euren ontzietan embarketako joan-etorrietan asko ito zirean uretara jausita, eta beste asko Ugarteren arkabuzen azpian.

Izarokoak laster konturatu zirean Bermeon zer pasetan zan, eta curak-bere igesari emon eutsen arrapalada bardiñean. Baiña itsumustuan, barku ta gizon, mutil gazte bat ez beste guztiak, Lamiarango atxetan galdu zirean.

DRAKE ITXASLAPURRA IZARON?

Guk emen ipiñi dogun jazoera negargaria Aita Loibe'k dakar bere historian. Baiña Labairu'k, Bizkaiko historiadoreak, apurtxu bat aldatuta kontetan deusku kasu bera.

Labairu'ren eritxiz, sir Francis Drake, ingeles pirata fama aundikoa izan zan bere amalau ontziakaz Bermeota, Izarora ta Gaztelugatxera etorri zana. Aita Loibe'ren ustez oster, La Rochela'ko hereje calvinistak izan zirean 1596'ko iraillean Izaro erre ebena: ezin eiteken izan Drake, urte bete lenago itxasoan il zanda.

Ez ete zirean Drake'ren itxaslagunak, bere izenaren itzalpean, Bizkaiko portuak eta Espaiñiako kosta guztiak ondatuten ebiltzanak? Gaiñera, ondo dakigu Frantziako calvinistak eta Ingalaterrako puritanoak euren artean adiskide izanik, artu-emon aundia erabilten ebela, batez bere katolikocri eta katolikoen errieri al eben kalte guztia egiteko.

Orregaitik, gure ustez, Loibe'ren La Rochelako herejeak, Labairu'ren Drake edo bere itxaslagunak izan zirean.

FORURA

Ainbeste naibage igarota gero be, frailleak eun urte ta geiagoan egon zirean Izaron. Baiña azkenean, Izaroko erretiro maitea itxi, eta beste leku batera joateko erabagia artu eben. Orretarako non leku obarik Foruan baiño? Forua! Txoko zoragarria, kristiñau zintzo ta garbien bizi-lekua! Forua

ez da Gernika, ta Gernika da. Bermeotik ez dago urrun eta urrun dago. Forua, berebiziko tokia Izaroko frailleentzat, euren bakar-tade santuan jarraituteko, euren apostolutza sugarra bazter guztietan zabaltzeko.

Bear zirean pausuak emonda, gauzak ederto baten atonduta, pozarren Foruratu zirean Izaroko frailleak 1714 urtean, eta arrezkero antxe dagoz Kristoren maastian zintzo lan egiten, Bizkai guztian zeruko Barri Ona zabaltzen, eta gesu baten langille barriak izango direan mutil gazteen gogoetan "frantziskotasun" azia ereiten.

BARRIRO IZARORA

Bermeoko fraille gazte, biotz alai ta optimista bateri entzunda daukot, urte gitxi barru, Izaroko orma zaarrak barriro barriztuko direala, ta komentu txiki txikitxu bat, pobre pobretxu bat egingo dala, eta antxe biziko direala frailleak barriro, urte osoan ezin bada, geienean beintzat, anai eguzki ta arreba igetargi, anai itxaso ta arreba krea-tura guztien izenean beiñolako frantziskanoen kantuari eten barik jarraituteko:

Jaunarena da lurra
ta bere betetasuna.
Berak ipiñi eban
itxasoaren gaiñean.

Aingeru

SEILLUEN VALIOA


Monaco-ko Printzipaduko arketan 240 milloi franko sartu dira, Rainiero Printzipa-ren bodako seilluak salduta.

ENZIKLIKA BARRI BAT

Aita Santuak, enziklika barri bat egiten diardu. Auzi sozialen gaiñean izango da.

MEDIKUAK FALTA DIRA

Hungarian ez dago medikurik. Erri asko osagille barik geratu dira. Bederatzireunek baiño geiagok iges egin dabe extranjerura, azkenengo matxiñadatik ona.



AASTE - BORRASTE

IL ORDUKO KONVERSIÑOA

Barri au Londresetik dator. "Catholic Herald" periodikoak diño, Dadan Kimathi, Afrikako Mau-Mau movimentuaren buruzagia, eriotzako orduan, kristiñau katoliko egin dala. Urrengo egunean, aurtengo zezillaren (febreruaren) 18-an, Nairobi-n urkatu eben, bere gaiztakerien kastiguz.

Bere bizitzako azken orduetan, beragaz egon zan Aita Joseph Weelan, misiñolari katolikoa. Beronek kontetan deusku gizon odolzale orren bizitzea.

—Beste Mau-Mautar bateri entzun deusat —esan eutsen Aita Weelan-ek— Jaungoikoagan eta Jesukristoren jaungoikotasunean siñistuten dozula. Esaidazu, egia da entzun dodana?

—Bai, egia da —erantzun eutsen Kimathi-k.

—Orduan, oraintxe daukozu era ona, zure arimeca salvetako eta txartoegiñak ordainduteko.

—Zelan egin neike nik ori, Jauna? —preguntau eutsen Kimathik.

—Laster ilgo zaitue —crantzun eutsen Aita Weelanek. Baiña ori gorabeera, aukera osoan ofrezidu zeinkio Jaungoikoari zure bizia. Lenengo, zeure gaiztakerien zorrak pagetako; eta bigarren, zeure erriarentzat bakea ta progresua ekarteko.

Gustau egin jakon Dadan Kimathiri misiñolariaren esana, eta kristañau dotriñea irakasteko eskatu eutsen. Bien bitartean, zezillaren 17-an esan eutsen, urrengo egunean urkatuko ebela. Bere azken ordua etorri za-

la jakin ebaneko, bertatik deitu eutsen Aita misiñolariari, eta beronen eskuetarik artu zituan bateoa eta komuniño santua, eta gau guztia igaro eben biak erlegiñoko gauzen gaiñean verba egiten.

Dadan Kimathi —Aita Weelanek diñoskun lez— trankil trankil il zan, verba oneck esaten zituan bitartean: "Jauna, zeure eskuetan ixten dot nire arimeca; parkatu ciguzu, neuri eta eureri."

ESPAIÑIAKO 11 BANKO NAGUSIAK

	Domua
Banko Zentrala	325.000.000
Banko Hispano Amerikanoa	450.000.000
Banko Merkantil ta Industrial... ..	100.000.000
Krediztuko Banko Espaiñola.....	371.000.000
Erriko Banko Espaiñola	152.334.000
Urkixo Bankoa	220.500.000
Bizkaiko Bankoa	300.000.000
Bilbaoko Bankoa	300.000.000
Santandereko Bankoa	100.000.000
Zaragozako Bankoa	75.000.000
Aragoiko Bankoa	60.000.000


OBISPO BALTZA

Munduko obisporik gazteena, erraza baltezkoa da. Monseiñor Maurizio Otunga, Babukusu tribuko jefearen semea, ogetamairu urtegaz izentatu dabe Takapae-ko obispo, Kenya-ko lurraldean.

AURRERAKUNTZEA

Inglaterran, euneko berrogetamarrek daukez telebisiño aparatuak. Emeretzi milloi persona nagusik trankil trankil entzun-ikusten dabez euren etxeetan BBC-ko emisiñoak.

MUNDUAN ZEAR



MEZAKO DIRUBATZEA TA LITURGIA

Mezatan egiten dan dirubatzek, asmo ekonomikoak eukiarren, printzipalki sinifikaziño liturgikoa dauko, oitura ori aintxiñako kristiñauen Ofertoriotik dator-da.

Parisen oraintsu argitaratu dabe Frantziako Obispoak "Meza Zuzenbide Liburua". Liburu orretan agintzen da, dirubatzek ori bear dan moduan egiteko, bere asmo liturgikoa kristiñau erriaren aurrean argi argi agertu daiten.

Aintxina, mezako Ofertorioan salmo oso bat kantetan zan. Bitartean, kristiñauak euren olatak ofrezietan zituen, eta gero maitasunezko bazkari baten danen artean jaten ebezan.

Zuzenbide liburu orrek 256 artikulua dakaz, eta zearo expliketari dau, kristiñau erriak zelan parte artu leiken eleizkizun liturgikoetan.

Komuniñoa, meza erdian artu bear litza-ke beti, sazerdoteak egiten dauan momentuan, sakrifizioaren benetako partea dalako. Ez deitso ardura, bitartean komulgetari ez direanak itxaron bear badabe, eta mezea luzatuten bada.

Pariseko artzobispo, Maurice Feltin Kardenalaren aginduz, meza zuzenbide au aste batzuetan domeketako meza guztietan irakurri da.

AFRIKAKO MISIÑOEN GAIÑEKO ENZIKLIKEA

Impresiño aundia egin dau mundu osoan, Afrikako Eleizearen gaiñean Aita Santuak oraintsurengo idatzi dauan enziklikeak.

Berreundamairu milloi bizitzaille daukoz Afrikako lurraldeak. Euretari 22 milloi, katoliko dira. Gizaldi onen asikeran barriz, Afrikako katoliko guztiak milloi ta erdi bakarrik zirean.

Lurralde orretan 10.796 sazerdotek lan egiten dabe. Propaganda Fide-ko Kongregaziñoaren menpean dagozan misiñoetan, emeretzki dira erraza baltzeko obispoak, eta 1.963 erriko seme sazerdoteak.

Erlegiño katolikoaren areriorik printzipalenak iru dira: lenengoa, Islam-a edo Mahomaren erlegiñoa, Afrika osoan 85 milloi jarraitzaille daukozana, eta gero ta geiago zabalduz doana.

Beste arerioak, komunismoa ta materialismoa dira, Europa ta Amerikatik etorritakoak.

ESPAIÑIAKO MAIXU NAZIONAL BATEN ILLEROKO IRABAZIA

Kategoria	Irabazi osoa	Kobretan dana
Lenengoa	2.570,—	2.087,38
Bigarrena	2.400,—	1.949,20
Irugarrena	2.260,—	1.827,52
Laugarrena	2.130,—	1.750,63
Bostgarrena	1.950,—	1.602,56
Seigarrena	1.790,—	1.488,99
Zazpigarrena	1.600,—	1.330,83
Zortzigarrena	1.430,—	1.189,33
Bederatzigarrena	1.310,—	1.102,28

Besteak diñoe...

Katolikoek nagitasuna dala-ta, auxe diño PAX amabosterokoak:

Orain esango doguna, ain baten gure kontra doa, akusatu gura dogun faltan, bearbada, geu be jausten gara-ta.

Gero ta gero be, emen eskribietan doguzan lerroak, verbak dira, eta gu orren kontra joan nai dogu, ez verba egitearen kontra, verbaldunkiaren kontra baiño.

Bearbada extranjeruko katolikoeri, euren dinamismoak eta aktividade larregiak jausi eragiten deutse egintzalarregikerian edo "amerikanismo" deritxon pekatuan. Gu barriz, sekulako alperkeri ta nagikerian bizi gara.

Latinoak garealako-edo, verbaldunak gara, eta askotan geure indarrak galtzen doguz, ezer be ez egiten, plantak egiten, verba utsak esaten eta —ia bardin dana— gauzak improvisatzen. Orrezaz gainera eta gure zoritxarrerako, kritikiko zorrotzak gara, ez dakigu iñor alabatzen eta admiratzen, eta makurkeri aundia daukogu invidiarantza.

Batzarretan, zirkuluetan, bazkalosteetan, erreivistetan, periodikoetan, asterokoetan, eundazak sama garramaztu eta beste orrenbeste luma estilografiko amostuten dira, danak zeingeiagoka esaten dabela: "Espainian ez daukogu prensarik, ez daukogu radiorik, ez daukogu novelarik, ez ziñerik, ez teatrorik, ez telebisiñorik, ez teologorik, ez soziologorik, ez filosoforik, ez pedagogorik, ez organizatzaillerik. Or dagoz barriz, Frantzián, Alemanian, Nortamerikan, Italian. Or dagoz Maurice Cloche, Graham Green,

Danielou, Von le Fort, Gilbert Cesbron...".

Eta orregaitiño, au diñoenak ez dira kapaz, aktividade bat sortu eragiteko, novela bat egiteko, ziñerako arloren bat asmetako edo periodikoetan artikulua mamintsu bat idazteko.

Eta noredonok olakoren bat egiten dauanean —errevista bat, etxe merke bat, pelikula bat, novela bat, radiorako zerbait— orduan sumindu egiten gara, eta Londreseko BBC-gaz, Bernanos-egaz eta "Paris-Match"-egaz beragaz komparaziñoak egiten asten gara.

Gu ez gagoz konforme bizimodu errez eta alper orregaz. Espainian iñok "zeredozer" egiten badau, guretzako gizon orrek asko valio dau; eta orrezaz gainera, Jaungoikoa eta bere Eleizea servitzeko egiten badau, orduan gizon ori heroe bat da, gure txalorik beroenak merezi ditu eta bere burua ereiñotzaz koroiatu bear da.

* * *

Leziño galanta euskaldunontzako be. Gu ez gara latinoak, baiña verbaldunak bai. Eta itzalak gainera. Beti gabiltz kejaz, beti esaten au txarto dabillega, euskerea galduaz doala, gure euskalduntasuna peligruan dagoala, gure kristiñau ekanduak gero ta geiago aldatu direala. Eta zer? Ori erremediatzeko zer egiten dogu? Ezer be ez.

Eta iñok zerbait egiten badau, ari zirikadea, ari verba zorrotza, ari eragozpena, ari kritikaziñoa.



EMAKUMEAREN TZAKO

MUNDUKO AMAR EMAKUME OSPETSUENAK

Periodikoetan euren izenak zenbat bidar urten daben kontuan eukita, igazko emakume ospetsueneren artean amar izeneko lista bat egin da. Ona emen amar emakumeok, euren famazko ordenean zeatz gordeta:

1. Grace Kelly, orain Monaco'ko printzesa.
2. Soraya, Persia'ko Emperadorearen emaztea, ama ezin izan leitekena.
3. Marylin Monroe, ez bera dalako, Arthur Miller eskribitzailleagaz ezkondu dalako baiño.
4. Inghaterrako Isabel erregeiña, bere egintza sozial eta kulturalakaitik.
5. Clara Boothe, Eroman Amerikako Estadu Alkartuen Embajadore izanikoa.
6. Gina Lollobrigida, Italiako ziñe artistarik onena eta ume eder baten ama.
7. Nina Ponomareva, Rusia'ko deportista indartsua, Londresen andra sombrero batzuk ostu zituana.
8. Belgikako Isabel, amama erregeiña, larogei urte kumplidu dituana.
9. Greet Hofmans, sasimedikua, Holanda'ko errege familiar desgustua sartu dauana.
10. Ellen Moore, sei illabeteen ez ilgo bai ilgo egonda gero, azkenean trankil trankil ume egin dauana.

EGIA ETE DA?

Auxe esan dau Sudafrrikako Doktore batek: Egiazko sexu sendoa, emakumezkoa da. Emakumea, gizona baiño geiago bizi da. Mutil umeak, neska umeak baiño makalagoak dira, eta euneko askoz geiago ilten dira. Gose demporan, gizonak emakumeak baiño lenago galtzen ditue indarrak. Gizonen artean anormal ugariago dagoz emakumeen artean baiño. Eta aolako beste gauza asko.

Verba baten esateko: Gizonaren nagusitasuna, guzurrezkoa da, propaganda utsa da. "Sexu sendoa" ezin deitu leitekio gizonari, emakumeari baiño.

EZ DAKIE ORRAZTUTEN

Rusiako emakumeak ez dakie zer dan ondo orraztutea. Orixe esan dau Jean Clément'ek, Paris'eko pelukeru batek, Rusiatik etorrita gero.

Orrazketa kontua Gobernuko Ministerio baten menpean dago; eta pelukerak, euren ofizioan benetako artistak izanarren, ezin leikee egin eurak gura dabena. Gobernuak norma batzuk ipini ditu, eta nai ta naiez gorde bear dira. Orregaitik, Rusiako andra guztiak bardin orraztuten dira.

Ori bai, ventaja bat dauke, eta ez txikia: pelukeria guztietan prezioa bat bakarra da. Edonon prezio bera, naiz kapitaletako pelukerietan naiz erri koxkorretakoetan.

Euskalzaleentzako verba bi

Bizitza liturgikoak kristiñau tipo barri bat moldatu dau gure egunotan. Kristiñau ori izango da etorkizuneko. Orainarte, Euskalerrian, kristiñau ori erderaz egin da. Erdereak emon deutso janari egokia. Or dagoz erderazko publikaziñoak, erderazko mezaliburuak, erderazko evangelioak, erderazko estudio-batzarrak, ete Zegaitik ez euskerazkoak? Zegaitik ez? Ogeigarren gizaldian, mundu modernu onetan, erlegiñoako gauzetarako be ez ete dau valio euskereak? Erantzun daiela EUSKERAGARBIZALEAK.